

URKI AUZOKO BILERA **(Urkiko parrokia 2011/10/18)**

1. Hezetasuna dago Polonia Etxeberria kaleko 5ean, usain txarra ateratzen da eta espaloiko lurzorua zartatuta dago.
2. Autobidea Urki auzotik pasatzen den zatian zarataren kontrako panelak jarri behar dira zaratarik ez izateko eta autobidetik etxeetara ezer ez erortzeko.
3. Txaltxazelai, Juan Gisasola eta Epaitegiko parkean isurbideak trabatuta daude.
4. Ubitxako kurban (Kutxa ondoan), Txaltxazelairako bidean, asfaltoa txarto dago.
5. Eskailerak garbitzeko eskaera Txaltxazelaietan eta Urkin.
6. Urkin dagoen Eroskiko pasilloan gernua dago.
7. Txaltxazelaiko parking-eko garajeetan lapurretak izan dira ate elektronikoa ez dabilelako.
8. Jubilatu etxetik Eroskirako eskaileren harmailak altura ezberdinetoak dira batetik bestera.
9. Ubitxako parkean konpondu ez den saski apurtu bat dago.
10. Urki-Kurutzekoan arranparrilak jartzea eskatu dute barbakoetarako.
11. Kexak daude Sautsiko urbanizazioak duen diseinuagatik.
12. Polonia Etxeberria kaletik Ubitxara bitarteko aldapan oinezkoen pasabide bat jartzea eskatu dute.
13. Unberako errepidean auto batzuk azkarregi joaten dira.
14. Polonia Etxeberria kaleko 9ko garajeetan baranda dago konpontzeke.
15. Urki-Kurutzekua parkeko iturriak txarto du hustubidea.
16. Urki-Kurutzekuako parkean beste 3 mahai gehiago jartzea.
17. Urki-Kurutzekuan arbolak jartzeko eskaera egin da.
18. Argiterian aurreztu egin behar dela eta, toki batzuk ilunetan geratzen dira eta, horren ondorioz, Ozpela Elkartean lapurretan egin dute.
19. Urki kaleko 16ko arrapalan ez dago beheraterik; gainera, labainduta dago.
20. Txaltxazelaia asfaltatzea, Ubitxako ostean.
21. Urki Kurutzekua: ez dago espaloitik arrapala mekanikotik Urki-Kurutzekuaraino.
22. Ubitxa kaleko 4an eta 6an barandak ustelduta daude. Plazari galtzadarriak falta zaizkio eta Ubitxa 6ko pegoretara ematen duten eskailerak txarto daude.
23. Katuak dabilta Ubitxa 6an.
24. Ubitxa kaleko 4ra ematen duten eskailerak eta hango lorategiak txukuntzea.
25. Ubitxa 4an hodia apurtuta dago.
26. Aparkalekua txarto kokatuta dago Ubitxa 4an eta 6an.
27. Ubitxako kurban dauden aparkalekuak kendu egin behar dira.
28. Ibilgailu batzuk ez dute behar bezala aparkatzen Ubitxan.
29. Katuak dabilta Ubitxa-Urkin.
30. Urki kaleko 13.eko eskailerak, Ubitxara doazenak, presiozko urarekin garbitzea eskatu dute.
31. Urki kaleko 13an, usoak akabatzea eskatu dute.
32. J.A. Iturrioz kaleko 1aren eta Polonia Etxeberria kaleko 1aren artean oinezkoen pasabide bat jartzea eskatu dute.
33. Epaitegiko garajeetan hustubideak trabatuta daude.
34. Urki kaleko 1ean espaloia beheratzea eskatu dute.
35. Ubitxa kaleko 3an dagoen gazteen lokala ixteko eskaera egin dute.
36. Urki auzotik kale-garbitzailea sarriago pasatzea eskatu dute.
37. Txaltxazelaiko kioskoaren harmailetatik ura irteten da.
38. Miguel de Aginaga 2ko espaloia labaina da.
39. Urkiko Eroskitik Urki kaleraino igogailu bat jartzeko eskaera.

40. Urki kaleko 13an: pegora parean putzua dago eta ura barrura sartzen da.
41. Ubitxako igoeran moto-zaratarengatik kexak.
42. Sansaburuko frontoia txukuntzeko eskaera egin dute.
43. Urki kaleko 16an oinezkoen pasabidea egoera txarrean dago.
44. Rioja tabernaren pareko parkea handitzea eskatu dute.
45. Txaltzelaiko parkea: zikinkeria dago, kristal apurtuak eta txakurrak solte eta muturreko gabe.
46. Martin upategiaren parean baranda jartzea.
47. Ceba tabernaren pareko parkean ur-filtrazioak daude.
48. Ubitxako iturrian lirdinga dago.
49. Urkiko kioskoaren espaloi pareko aparkalekuarekin arazoak daude.
50. Ubitxa kaleko 7-9 eta 11. pareko galtzada estua da. Leku hartan dauden 7-8 aparkaleku haiek kenduta konponduko litzateke.
51. Ubitxa kaleko 15aren parean dagoen kale-zuloan, buelta emateko eta sartzeko arazoak daude.
52. Polonia Etxeberria kaleko 4. eraikinerako proiekturen bat egiteko eskaera.
53. Irisgarritasun zaila du auzoak. Alde batetik 3 aldapa daude, eta bestetik, eskailera larregi. Arrapalak edo eskailera mekanikoak eskatu dituzte.
54. Errekatxuko arbolak inausteko eskaera.
55. Sansaburuko garajeetako goiko solairura irsteko oinezkoen espaloi bat eraikitzeke eskaera egin dute.
56. Sansaburuko garajeetako sarreraren ondoan dagoen oinezkoen pasabidean goragunea jartzeko eskaera egin dute.
57. Inguru hartan edukiontzi falta dago.
58. Errekatxu kaleko 25aren espaloian lirdinga dago eta oso labaina da.